


## **BALIO EKARPENA**

### **Nola funtzionatzen du?**

Denek ezagutzen dute Tinder, Interneten bidez bikotea lortzen laguntzen duen programa. Programa honen bidez, jendeak bere profila aurkeztu egiten du, eta plataforman dauden gainontzeko erabiltzaileek profil hau ikusi ahal izango dute. Modu honetan, zure gustukoa den profil bat aurkitzerakoan, horrekin harremanetan jartzeko aukera ahalbidetzen dizu. Horrela sortzen ditu programa honek bikoteak.

Hezkunderren ideia hemendik sortzen da. Plataformaren egitura berdina izango da, eta modu digitalean funtzionatuko dugu. Funtzionamenduari dagokionez, berdina izango da, bi erabiltzaile mota ezberdin izango ditugu eta hauek izena eman behar izango dute.

Baina bikoteak sortzen lagundu beharrean, klasetik kanpoko klaseak lortzen lagunduko du. Beraz, ikasleak diren erabiltzaileek izen emango dute, eta irakasle desberdinek eskaintzen dituzten klase eta ikasgaiak izango dituzte ikusgai. Horrela aukeratu ahal izango dute ikasleek beraiek nahi edo behar duten irakaslea (kokagunearen eta ezagutzen arabera), guk ezarritako tarifa eta ereduak jarraituz. Irakasleen profiletan, eskaintzen dituzten klaseak, dituzten tituluak eta klaseak non emango dituzten (ze herritan) zehaztu beharko dute. Azken puntu hau aipagarria da, aplikazioa ezin baititu gomendatu Bilbon klase emango duten irakasleak Algortako ikasleei, adibidez.



### **Zergatik erosi gure enpresan /eta ez lehiakideei?**

Lehiakide asko ez egoteaz gain, **hezkuntza sisteman beharrezkoa den zerbitzu bat bermatzen dugulako**. Gainera, **aplikazio eroso eta erabiltzeko erraza** da gure enpresarena.

Gure enpresaren bereizgarrietariko bat, bada, **gure enpresak hezkuntza sisteman behar handiena dutenei laguntzen diela**. Izan ere, eskolaz kanpoko akademia edota eskola kontzertatu, publiko eta pribatuak asko dira Bizkaia inguruan. Baina horietariko zeinek eskaintzen die ibilbidea hasteko aukera bat irakasle gazteenei edota aukera gutxien izan dutenei? Zeinek du benetako interesa emaitza onak ez duten ikasle eta haien familietan? Gure enpresak besterik ez.

### **Zein da konpontzen dugun arazoa edota gabezia?**

Begi-bistakoa da gaur egungo hezkuntza sisteman badaudela atzean geratzen diren ikasleak, arrazoi ezberdinak direla medio. Aplikazio honekin honi buelta bat emateko aukera eskainiko dugu, eta ikasle hauek behar dituzten klaseak burutu ahal izango dituzte, beraiek aukeratutako irakaslearekin. Eskaintza zabala "click" baten eskura.... Bestalde, lana sortuko dugu, beste aldean irakasleak daudelako, eta hauek klasea ematearen truke soldata bat jasoko dutelako. Horrela guztiak aterako dira irabazten. Aipagarria da, konpontzen dugun arazoa baino garrantzitsuagoa dela enpresak bilatzen duen konponbidea; **irakasle gazte eta irakasteko gai direnak eta ikasle zein familientzat hurbileko tratua.**

#### **Gure enpresaren ekarpena:**

Egia da badaudela klase onlineak eskaintzen dituzten plataformak, baina hau ez da horrelakoa. Gurean soilik **irakasleen zerbitzua eskainiko da**, eta gero klaseak online edo presentzialak egitea ikaslearen esku egongo da. Gainera, honetara dedikatzen diren beste plataforma batzuk ez bezala, **ikasgaiak euskaraz egiteko aukera ematen du, eta baita euskara ikasgaia lantzeko.**

Horretaz gain **klase onlineak emateko baliabideak eskainiko dizkiegu irakasleei** eta irakasleak orokorrean gazteak izango direnez, teknologia berriak ezagunagoak egingo zaizkie. **Informatikoen lanak, berriz, familia eta ikasleei** egotea ahalbidetuko die, izan ere, aplikazioa irakasleen eta antolatzaileen kontaktuak egongo dira gerta daitekeen edozein kontutarako.

#### **Onura orokorrak:**

-**Ikasleek, behar duten irakaslea topatuko** dute era erosoan eta haiei ondoen datorkien prezioetan. Horretaz gain, arazo gehien dituzten arloetan hobetzeko aukera izango dute.

-Irakasleek, bestalde, hezkuntza sistemak eman ez dien aukera bat izan dezakete eta diruaz gain esperientzia irabazi, izan ere, **irakasle gazteei aukera bat ematea** funtsezkoa izango da gure app-an.

-Lana ikaslearen arabera alda daiteke; haiek aukeratuko dute taldeka ikasi nahi duten, banaka, online eran edota era fisikoan...

